

## I. Atala / Sección I

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioa  
Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia

## Foru Aldundia / Diputación Foral

**Enplegua, Gizarte Inklusioa  
eta Berdintasuna Sustatzeko Saila**

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 6/2016 FORU DEKRETUA, urtarrilaren 26koa, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren erregelamendu organikoa onesten duena.**

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren helburua da Bizkaiko gizarte berdintasuna, elkartasuna, gizarte-kohesioa eta enplegua bultzatzeko politika publikoak sortu eta sustatzea eta, horretarako, zerbitzuak ematea egoera pertsonalaren, sozialaren edo familia-egoeraren ondorioz bizimodu duin eta betea garatzeko zailtasunak dituzten pertsonen. Zeregin horretan, arreta berezia jarriko du babesgabetasun-egoeran dauden edo tratatu txarren biktima diren emakumeen kolektiboan eta gizarte-bazterketako egoeran edo egoera horretan geratzeko arriskuan dauden pertsonen kolektiboan. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak, orobat, enplegua eta herritarren lan-gaitasunak sustatuko ditu, eta giza garapen iraunkorra bultzatuko, genero, dibertsitatearen kudeaketa eta lankidetzeta eta garapenaren arloko politiken bidez.

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak pertsonen prozesuetan, familia-inguruneetan eta ingurune komunitarioetan esku hartzen du, haien bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzeko eta haietako bakoitzaren erabateko inklusioa lortzeko.

Indarrean dagoen legeriaren esparruan eta bere eskumenen arabera, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak bigarren mailako gizarte-zerbitzuak edo zerbitzu espezializatuak garatzen ditu Bizkaiko Lurralde Historikoan, inklusioaren, emakumearen eta familiarentzako laguntzaren arloetan.

Ahaldun Nagusiaren 2015eko uztailaren 2ko 94/2015 Foru Dekretuaren bidez (Bizkaiko Foru Aldundiaren 2015eko abenduaren 9ko 186/2015 Foru Dekretuak aldatua), Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren egitura organikoa onetsi zen, eta, bertan, hiru zuzendaritza nagusi ezarri ziren: Enplegua Sustatzeko, Gizarte Inklusioa Sustatzeko eta Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitaterako zuzendaritza nagusiak.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.a) eta 60. artikuluetan ezarritakoaren arabera, foru diputatu bakoitzari dagokio bere sailaren egitura eta antolaketari buruzko proposamena egitea.

Era berean, foru arau horren 17. eta 60. artikuluek xedatzen dute Bizkaiko Foru Aldundiari dagokiola sailen egiturak eta erregelamendu organikoak onestea.

Aurreko guztia dela bide, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Aldundiak 2016ko urtarrilaren 26ko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DA:

**1. artikulua**

Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onestea. Erregelamendu hori eranskin legez batu zaio foru dekretu honi, eta haren xedapen-zatiaren barruan txertaturik geratzeko da ondore guztietarako.

**Departamento de Empleo,  
Inclusión Social e Igualdad**

**DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 6/2016, de 26 de enero, por el que se aprueba el Reglamento Orgánico del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad.**

El Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad tiene como misión la generación e impulso de políticas públicas favorecedoras de la igualdad, la solidaridad, la cohesión social y el empleo en la sociedad de Bizkaia, mediante la prestación de servicios a aquellos ciudadanos y ciudadanas que, a causa de su situación personal, social o familiar, tengan dificultades para desarrollar una vida digna y plena, centrando el foco de su atención en el colectivo de mujeres en situación de desamparo o víctimas de maltrato, en el de las personas en riesgo o situación de exclusión social, el impulso y la promoción del empleo y las competencias laborales de la ciudadanía, así como en la promoción del desarrollo humano sostenible, diseñando políticas de género, de gestión de la diversidad y de cooperación y desarrollo.

El Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad incide en los procesos de las personas, sus entornos familiares y comunitarios para procurar la mejora de su calidad de vida, de su bienestar y de la inclusión plena de cada una.

Dentro del marco de la legislación vigente, y, en función de sus competencias, el Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad desarrolla los servicios sociales de nivel secundario o especializado en los ámbitos de inclusión, mujer e intervención familiar del Territorio Histórico de Bizkaia.

Mediante Decreto Foral del Diputado General 94/2015, de 2 de julio, modificado por Decreto Foral 186/2015, de 9 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, se dispuso la estructura orgánica del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, en la que se han establecido tres direcciones generales: la de Empleo, la de Inclusión Social y la de Igualdad, Cooperación y Diversidad.

Conforme disponen los artículos 39.a) y 60 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, corresponde a cada diputado o diputada foral realizar la propuesta de la estructura y organización del departamento del que sea titular.

A su vez, los artículos 17 y 60 de la citada norma foral, determinan que la aprobación de la estructura de los departamentos y sus reglamentos orgánicos corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia.

Por todo lo que antecede, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, previa deliberación y aprobación de la Diputación Foral, en su sesión del 26 de enero de 2016,

SE DISPONE:

**Artículo 1**

Aprobar el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia, que se adjunta como Anexo del presente Decreto Foral, y que queda incorporado a su parte dispositiva a todos los efectos.

**2. artikulua**

Foru dekretu hau eta eranskineko erregelamendua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko dira indarrean.

**XEDAPEN GEHIGARRIA**

1. Sailaren barruan batzorde teknikoak sortu ahal izango dira, sailaren eskumeneko gaiak aztertzeke, sustatzeko eta, hala denean, proposamenak egiteko. Egituratik kanpoko organo gisa eratu tuko dira.

2. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatuaren foru agindu baten bidez sortuko dira batzordeak. Foru agindu horretan honako hauek zehaztuko dira: batzordearen jardun-eremua, osaera, indarraldia, eta, oro har, eraginkortasunik handiena lortzeko egokitzat jotzen diren alderdi guztiak.

3. Batzordearen lehenengo bileran, funtzionamendurako eta bileretarako erregimena erabakiko da.

**XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

1. Foru dekretu hau eta eranskineko erregelamendua indarrean jartzen direnean, indargabeturik geratuko dira haietan xedatutakoarekin bat ez datozen lerrun bereko edo beheagoko xedapen guztiak, eta, bereziki, 2012ko apirilaren 13ko 70/2012 Foru Dekretua, xedapen honek araututako egitura-arloei dagokienez.

2. Gizarte Ekintza Sailean lehendik dauden barne batzordeek indarrean jarraituko dute, baldin eta Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren eginkizun eta eskumenekin lotuta badaude eta haien helburuak edo jardun-eremua foru dekretu honetan xedatutakoaren aurkakoak ez badira.

**AZKEN XEDAPENAK****Lehenengoa**

Ahalmena ematen zaio Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatuari foru dekretu honen bidez onetsitako erregelamendua garatu, bete eta aplikatzeko beharrezkoztat jotzen dituen xedapen guztiak emateko.

**Bigarrena**

Ahalmena ematen zaio Ogasun eta Finantzen foru diputatuari eranskinean dagoen egitura organikoari buruzko erregelamenduan xedatutakoa gauzatzeko aurrekontuan behar diren aldaketak egiteko.

Bilbon, 2016ko urtarrilaren 26an.

Enplegua, Gizarte Inklusioa  
eta Berdintasuna, Sustatzeko foru diputatua,  
TERESA LAESPADA MARTÍNEZ

Ahaldun Nagusia,  
UNAI REMENTERIA MAIZ

**ERANSKINA****BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO ENPLEGUA, GIZARTE INKLUSIOA  
ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO SAILAREN EGITURA  
ORGANIKOARI BURUZKO ERREGELAMENDUA****I. KAPITULUA****ESKUMEN-EREMUA****1. artikulua**

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailari honako jardun-eremu hauek dagozkie:

- Kultura ekintzailea eta autoenplegua bultzatzea
- Baztertuta geratzeko arriskuan dauden edo enplegua lortzeko zailtasunak dituzten pertsonak laneratzea.
- Enplegagarritasuna sustatzea eta hari eustea.
- Aldundiak partaidetutako eta sailari atxikitako erakundeen jarraipena eta kontrola.

**Artículo 2**

El presente Decreto Foral y el reglamento adjunto entrarán en vigor al día siguiente al de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

**DISPOSICIÓN ADICIONAL**

1. Se podrán crear en el seno del departamento comisiones técnicas, que se configurarán como órganos no estructurales, encargados del estudio, impulso, y, en su caso, propuesta de acuerdos, en materias en las que el departamento sea competente.

2. Las comisiones se crearán mediante orden foral del diputado o diputada foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, en donde se indicará el ámbito de actuación, composición, período de vigencia y, en general, cuantos extremos se consideren oportunos de cara a obtener una mayor eficacia.

3. En la primera reunión de la comisión, se acordará el régimen de funcionamiento y de reuniones de la misma

**DISPOSICIÓN DEROGATORIA**

1. A la entrada en vigor del presente decreto foral y del reglamento anexo quedarán derogadas cuantas disposiciones de igual o de inferior rango se opongan a lo establecido en el mismo, y, en particular, el Decreto Foral 70/2012, de 3 de abril, en lo afecte a las áreas estructurales reguladas en la presente disposición.

2. Las comisiones internas existentes en el departamento de Acción Social que guarden relación con las funciones y competencias del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad continuarán vigentes, siempre y cuando sus objetivos o ámbito de actuación no se oponga a las prescripciones del presente decreto foral.

**DISPOSICIONES FINALES****Primera**

Se autoriza al diputado o diputada foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad para dictar cuantas disposiciones considere necesarias para el desarrollo, ejecución y aplicación del reglamento aprobado por el presente decreto foral.

**Segunda**

Se autoriza al diputado o diputada foral de Hacienda y Finanzas para efectuar las modificaciones presupuestarias que se precisen para dar cumplimiento a lo dispuesto en el reglamento de estructura orgánica anexo.

En Bilbao, a 26 de enero de 2016.

El Diputado General,  
UNAI REMENTERIA MAIZ

La diputada foral de Empleo,  
Inclusión Social e Igualdad,  
TERESA LAESPADA MARTÍNEZ

**ANEXO****REGLAMENTO DE ESTRUCTURA ORGÁNICA  
DEL DEPARTAMENTO DE EMPLEO, INCLUSIÓN SOCIAL  
E IGUALDAD DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA****CAPÍTULO I****ÁMBITO COMPETENCIAL****Artículo 1**

Al Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad le corresponden como áreas de actuación las siguientes:

- El impulso de la cultura emprendedora y el autoempleo
- La inserción laboral de personas en riesgo de exclusión o con dificultades de acceso al empleo.
- La promoción y sostenimiento de la empleabilidad.
- El seguimiento y control de las entidades participadas por la Diputación y adscritas al Departamento.

- Gizarte-zerbitzu foralak, — prestazioak zein zerbitzuak —, hain zuzen, honako hauek: bazterketa-egoeren ondoriozko beharrezanean erantzuteko direnak edo inklusio sozialera bideratutakoak; familian genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak eta haien seme-alabak gizarteratzeko eta babesteko direnak, eta familietan esku-hartze soziala egiteko direnak.
- Pobrezia eta gizarte-bazterketaren aurkako politikak.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea Bizkaiko Lurralde Historikoan, bereziki, emakumeen aurkako indarkeriari, erantzunkidetasunari eta emakumeak bizitzaren arlo guztietako ahalduzeari dagokienez.
- Garapenerako lankidetzaren bultzatzea Hegoaldeko herrialdeetan. Bizkaiko gizartearen, hezkuntza-estrategien bidez gauzatuko da lankidetzaren hori; gure mugetatik kanpo, berriz, lankidetzaren deseentralizatutako politiken bidez, nazioartean elkartasuna erakusteko.
- Berdintasunerako, dibertsitatea (sexuala, kulturala, belaunaldiena, funtzionala ...) kudeatzeko eta bereizkeria mota guztiak desagerrarazteko politika foralak
- Eta, oro har, honako arlo hauekin zerikusia duten politika eta jarduerak garatzea:
  - Berrikuntza eta enplegarritasunaren sustapena (bereiziki, gazteen artean),
  - Familia, gizarte-kohesioa eta garapen komunitarioa eta,
  - Gizarte Ekintza Sailarekin batera, gizarte-ekimenaren (Gizarte Ekintzako Hirugarren sektorea), gizarte-boluntariotzaren lanaren eta elkarrizketa zibilaren sustapena.
- Los servicios sociales forales, tanto prestaciones como servicios, mediante los cuales se dé respuesta a las necesidades derivadas de las situaciones de exclusión o estén orientados hacia la inclusión social y hacia la protección de mujeres víctimas de violencia de género en el ámbito familiar y sus hijos, así como todos los orientados a la intervención social con familias.
- Las políticas de lucha contra la pobreza y la exclusión social.
- La promoción de la igualdad entre mujeres y hombres en el Territorio Histórico de Bizkaia, con especial atención a la violencia contra las mujeres, la corresponsabilidad y el empoderamiento de las mujeres en todos los ámbitos de la vida.
- El impulso de la cooperación al desarrollo en países del Sur, que será orientada, tanto en la sociedad de Bizkaia mediante estrategias de educación para el desarrollo, como fuera de nuestras fronteras, a través de las políticas de cooperación descentralizada como muestra de solidaridad internacional.
- Las políticas forales de igualdad y de gestión de la diversidad (sexual, cultural, generacional, funcional...) y lucha contra todas las formas de discriminación
- Y en general, el impulso y desarrollo de todas las políticas y actividades que tengan relación con:
  - La innovación y la promoción de la empleabilidad, especialmente entre la juventud
  - La familia, la cohesión social y el desarrollo comunitario
  - Y concurrentemente con el Departamento de Acción Social, el fomento de la iniciativa social (Tercer Sector de Acción Social), el voluntariado social y el diálogo civil.

## II. KAPITULUA

## EGITURA ETA EGINKIZUNAK

## LEHENENGO ATALA

## SAILAREN EGITURA

## 2. artikulua

1. Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila, bere titularraren goi-zuzendaritzapean, honela egituratzen da:

- 1 Enplegua Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
  - 1.1. Enplegua Sustatzeko Zerbitzua
    - 1.1.1. Enplegua Sustatzeko Atala
  - 1.2. Zerbitzu Orokorren Zerbitzua
    - 1.2.1. Giza Baliabideen eta Antolaketaren Atala.
    - 1.2.2. Lege eta Aurrekontu Atala.
2. Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia.
  - 2.1. Inklusioa Sustatzeko Zerbitzua
    - 2.1.1. Ebaluazioaren, Prestazioen eta Kontrolaren Atala
    - 2.1.2. Gizarte Inklusiorako Zentro eta Programen Atala
  - 2.2. Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua
    - 2.2.1. Emakumeen Atala
3. Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitaterako Zuzendaritza Nagusia.
  - 3.1. Berdintasunerako eta Dibertsitaterako Arloa
  - 3.2. Garapenerako Lankidetzaren Arloa
2. Sailaren barruko administrazioaz Zerbitzu Orokorren Zerbitzua arduratuko da, Enplegua Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiaren menpe.

## CAPÍTULO II

## ESTRUCTURA Y FUNCIONES

## SECCIÓN PRIMERA

## ESTRUCTURA DEPARTAMENTAL

## Artículo 2

1. El Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, bajo la superior dirección de su titular, se estructura de la siguiente forma:

1. Dirección General de Empleo.
  - 1.1. Servicio de Empleo
    - 1.1.1. Sección de Empleo
  - 1.2. Servicio de Servicios Generales
    - 1.2.1. Sección de Recursos Humanos y Organización
    - 1.2.2. Sección Jurídico-Presupuestaria.
2. Dirección General de Inclusión Social.
  - 2.1. Servicio para la Inclusión
    - 2.1.1. Sección de Valoración, Prestaciones y Control
    - 2.1.2. Sección de Centros y Programas para la Inclusión Social
  - 2.2. Servicio de Mujer e Intervención Familiar.
    - 2.2.1. Sección de Mujer
3. Dirección General de Igualdad, Cooperación y Diversidad.
  - 3.1. Área de Igualdad y Diversidad
  - 3.2. Área de Cooperación al Desarrollo
2. La administración interna del Departamento se llevará a cabo por el Servicio de Servicios Generales dependiendo de la Dirección General de Empleo.

**3. artikulua**

1. Enplegua Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak bi zuzendaritza nagusi ditu: Enplegua Sustatzeko Zerbitzua eta Zerbitzu Orokorren Zerbitzua.

2. Enplegua Sustatzeko Zerbitzuaren mende, Enplegua Sustatzeko Atala dago.

3. Zerbitzu Orokorren Zerbitzuaren mende, berriz, Giza Baliabideen eta Antolaketa Atala eta Lege eta Aurrekontu Atala.

**4. artikulua**

1. Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak bi zuzendaritza nagusi ditu: Inklusioa Sustatzeko Zerbitzua eta Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua.

2. Inklusioa Sustatzeko Zerbitzuak, bestalde, bi atal ditu: Ebaluazioaren, Prestazioen eta Kontrolaren Atala eta Gizarte Inklusiorako Zentro eta Programen Atala.

3. Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuaren menpe, Emakumeen Atala dago.

**5. artikulua**

Berdintasunerako, Lankidetzarako eta Dibertsitaterako Zuzendaritza Nagusiak bi idazkaritza orokor tekniko ditu: Berdintasunerako eta Dibertsitaterako Arloa eta Garapenerako Lankidetzaren Arloa.

## BIGARREN ATALA

## SAILAREN UNITATE ORGANIKOAK

**6. artikulua.— Foru diputatua**

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila foru diputatuaren goi-zuzendaritzaren menpean dago, hark beteko baititu, bere eskumeneko arloetan, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauak ematen dizkion eskudantziak.

**7. artikulua**

Foru Aldundiko kidea denez gero dagozkion eginkizunetaz gainera, Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko foru diputatuak honako eginkizun hauek izango ditu: Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila antolatzea, zuzentzea, ikuskatzea eta haren ordezkari aritzea, bai eta horretarako hartu beharreko erabakiak hartzea ere. Bereziki, honako egin-behar hauek dagozkie:

a) Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saileko eta haren menpeko nahiz hari atxikitako establezimendu eta organismoetako pertsonalaren goi-mailako agintaritza betetzea. Horretarako, bere sailaren funtzionamenduari buruzko barruko aginduak, zirkularrak eta jarraibideak eman ahal izango ditu.

b) Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren aurrekontu-proiektua prestatzea eta Foru Aldundiari igortzea, Aldundiak Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorreari buruzko proiektuari eransteko onespina eman dezan.

c) Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren jarduera-programak prestatzea eta Foru Aldundiari aurkeztea, hark onets ditzan.

d) Indarrean dagoen legeriak esleitzen dizkion gainerako ahalmen guztiak.

**8. artikulua**

Foru diputatuak, bere eginkizunak betetzeko, zuzendari nagusiak, arloetako buruak, zerbitziburuak eta atalburuak izango ditu laguntzaile. Halaber, haien laguntza izango du Foru Aldundiaren bileretara igorri behar dituen gaiak prestatzeko zereginean eta, oro har, foru diputatuak intereseko deritzen gainerako gai guztietan.

**Artículo 3**

1. La Dirección General de Empleo se estructura en el Servicio de Empleo y el Servicio de Servicios Generales.

2. Del Servicio de Empleo depende la Sección de Empleo.

3. Del Servicio de Servicios Generales dependen la Sección de Recursos Humanos y Organización y la Sección Jurídico-Pre-supuestaria.

**Artículo 4**

1. La Dirección General de Inclusión Social se estructura en el Servicio para la Inclusión y el Servicio de Mujer e Intervención Familiar.

2. El Servicio para la Inclusión se estructura en la Sección de Valoración, Prestaciones y Control y la Sección de Centros y Programas para la Inclusión.

3. Del Servicio de Mujer e Intervención Familiar depende la Sección de Mujer.

**Artículo 5**

La Dirección de Igualdad, Cooperación y Diversidad se estructura en dos Secretarías Generales Técnicas, que se denominarán Área de Igualdad y Diversidad, y Área de Cooperación al Desarrollo.

## SECCIÓN SEGUNDA

## UNIDADES ORGÁNICAS DEL DEPARTAMENTO

**Artículo 6.— La diputada foral**

El Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad depende de la superior dirección de la diputada foral quien ejerce, en relación con las materias propias de su competencia, las atribuciones encomendadas en la Norma Foral número 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia.

**Artículo 7**

A la diputada foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad competen, además de las funciones que le corresponden como miembro de la Diputación Foral, la organización, dirección, inspección y representación del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, adoptando al efecto las decisiones pertinentes, y en particular:

a) Ejercer la superior autoridad del personal del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad y de los establecimientos y organismos que de él dependen o a él se adscriban, pudiendo dictar órdenes internas, circulares e instrucciones respecto al funcionamiento de su Departamento.

b) Elaborar el Anteproyecto de Presupuesto del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad y someterlo a la Diputación Foral para su incorporación al Proyecto de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia.

c) Elaborar los programas de actuación del Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad y someterlos a la aprobación de la Diputación Foral.

d) Cuantas otras facultades le atribuya la legislación vigente.

**Artículo 8**

La diputada foral será asistida por las personas titulares de las Direcciones Generales, las Áreas, las Jefaturas de Servicio y las Jefaturas de Sección, en el desarrollo de sus funciones, así como en la elaboración de los asuntos que se remitan por su Departamento a las sesiones de la Diputación Foral, y en general en todos aquellos que el titular del departamento considere de interés.



**9. artikulua.—Zuzendaritza nagusiak**

1. Zuzendari nagusiak esleitzen zaizkien zuzendaritza nagusietako buruak dira. Haietan, zuzendaritza- eta aginte-postuak dituzte, eta honako eginkizun hauek betetzen dituzte: ordezkaritza; txostenak eta azterketak egitea; aholkularitza ematea; goragokoei proposamenak aurkeztea, eta beren mendeko barne-organoen jarduerak zuzendu eta koordinatzea.

2. Zuzendaritza nagusiei honako hauek dagozkie: sailaren politikak gauzatea, jarduera publikoaren lerroak garatzea eta Foru Aldundiak, Ahalduen Nagusiak eta saileko foru diputatuak ezartzen dituzten kudeaketa-helburuak betetzea.

3. Administrazio-prozeduretan indarrean dauden xedapenek ematen dizkieten eginkizun zehatzez gainera, zuzendaritza nagusiei dagozkie beren eskumenen arloko jardueraren ekimena eta bultzada egitea, Saileko foru diputatuak ezarritako ildoen arabera, bai eta atxikita dituzten zerbitzu eta atalen jarduna bultzatu, kontrolatu eta koordinatzea ere.

Goian aipaturiko eginkizunez gainera, honako arlo hauen gaineko ardura dagozkie zuzendari nagusiei:

a) Beren izendapenaren arabera eskumeneko dituzten gaiak zuzentzea eta ebaztea, baldin eta gai horiek foru diputatuari ez bada gozko.

b) Foru diputatuari egoki ikusten dituzten ebazpenak proposatzea, eskumenekoak dituzten eta haien zuzendaritza nagusiak izapidetu behar dituen gaiei dagozkienez.

c) Aldundiari obligazio ekonomikorik ez dakarkioten administrazio-prozedurak abiarazi, aztertu eta ebaztea, baldin eta horretarako eskumena beste organoren bati eman ez bazaio dago-kion xedapen arautzailearen bitartez.

d) Foru diputatuari laguntza teknikoa ematea, hark egoki deritzen kasu guztietan.

e) Beren gain hartzea zuzendaritza nagusiari atxikitako zentro eta erakundeen ikuskaritza, zaintza eta kontrola.

f) Beren zuzendaritza nagusiaren jarduera-proiektuak prestatzea.

g) Beren mendeko bulegoen barne araudiari dagozkion guztia xedatzea.

h) Beren kargu dituzten zerbitzuak hobetzeko eta perfektionatzeko berrikuntzak proposatzea eta proposamenok foru diputatuari helaraztea, urtero. Horretaz gainera, zerbitzuon antolamenduari eta lan-metodoei dagozkien guztia prestatzea.

i) Urtean behin, beren zuzendaritzaren bilakaerari, kostuei eta etekinei buruzko txostena helaraztea foru diputatuari.

**10. artikulua**

1. 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 41. artikuluan xedatutakoaren arabera, Foru Aldundiaren erabaki baten bidez izendatu eta kargugabetu behar dira zuzendari nagusiak, dagozkion diputatuaren proposamenarekin bat.

2. Foru diputatua ez dagoenean, zuzendari nagusiek izango dute sailaren protokolo-ordezkaritza, bakoitzak bere eskumenen eremuan.

3. Zuzendari nagusiek foru diputatuak eskuordeturik beteko dituzte 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 44. artikuluko 4. zenbakian xedatzen denaren arabera hark ematen dizkien eginkizunak.

**11. artikulua.—Zerbitzuburutzak**

1. Zerbitzuburuak zuzendaritza nagusi baten menpe daude, zuzenean eta hierarkikoki, eta honako eginkizun hauek dituzte: beren unitate organikoari dagozkion gaiei buruzko azterketak, txostenak, aholkuak eta proposamenak egitea goragoko kargudunentzat; beren titulazio espezifikoak ematen dien gaikuntzaren arabera jarduerak zuzenean egitea, eta beren menpeko barne-organoen jarduna zuzendu, sustatu eta koordinatzea.

**Artículo 9.—Las Direcciones Generales**

1. Los/as Directores Generales son los/las titulares de las Direcciones que les están encomendadas y ocupan los puestos directivos y de mando cuya competencia comprende funciones de representación, informe, estudio, asesoramiento y propuesta de carácter superior, dirigiendo y coordinando las actuaciones de los órganos internos que de ellos dependen.

2. Corresponde a las Direcciones Generales la ejecución de las políticas, el desarrollo de las líneas de actuación pública y el cumplimiento de los objetivos de gestión establecidos por la Diputación Foral, el Diputado General y la diputada foral titular del Departamento.

3. Sin perjuicio de las funciones específicas que en los procedimientos administrativos les atribuyen las disposiciones vigentes, compete a las Direcciones Generales, la iniciativa y el impulso general de la actuación de su área competencial según las líneas marcadas y/o por la diputada foral titular del Departamento, así como el impulso, control y coordinación de las actuaciones de los servicios y de las secciones que les son adscritos.

Además de las funciones citadas, en particular les corresponden a los/las titulares de las Direcciones Generales la responsabilidad de las siguientes materias:

a) Dirigir y resolver los asuntos que, de conformidad con su nombramiento, sean de su competencia y no vengan atribuidos a la diputada foral.

b) Proponer a la diputada foral la resolución que estime procedente en los asuntos de su competencia y cuya tramitación corresponda a su Dirección General.

c) Iniciar, conocer y resolver los procedimientos administrativos y sus incidencias, que no supongan obligaciones económicas para la Diputación, salvo que dichas facultades estuvieren atribuidas a otros órganos por las disposiciones reguladoras correspondientes.

d) Prestar asistencia técnica a la diputada foral en cuantos asuntos éste lo estimare conveniente.

e) Asumir la inspección, vigilancia y control de los centros y organismos afectos a su Dirección General.

f) Elaborar los proyectos de actuación de su Dirección General.

g) Disponer todo lo referente al régimen interno de las oficinas a su cargo.

h) Proponer las reformas encaminadas a la mejora y perfeccionamiento de los Servicios a su cargo, y elevarlas anualmente a la diputada foral, preparando todo lo relativo a su organización y métodos de trabajo.

i) Elevar anualmente a la diputada foral un informe acerca de la marcha, coste y rendimiento de su Dirección.

**Artículo 10**

1. De conformidad con lo establecido en el artículo 41 de la Norma Foral número 3/1987, de 13 de febrero, la personas titulares de las Direcciones Generales serán nombradas y cesadas por acuerdo de la Diputación Foral, a propuesta del Diputado/a correspondiente.

2. Los/las directores/as generales, en ausencia de la diputada foral, ostentarán la representación protocolaria del Departamento, dentro del ámbito de sus respectivas competencias.

3. Los /las directores/as generales ejercerán, por Delegación de la Titular del Departamento, las funciones que ésta les confiera al amparo de lo dispuesto en el artículo 44.4 de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero.

**Artículo 11.—Las Jefaturas de Servicio**

1. Las personas titulares de las Jefaturas de Servicio dependen directa y jerárquicamente de una Dirección General, consistiendo sus funciones en el estudio, informe, asesoramiento, y propuesta de carácter superior en las materias atribuidas a su unidad orgánica y la directa realización de actividades para las que le capacita específicamente su titulación, dirigiendo, impulsando y coordinando las actuaciones de los órganos internos que de ellos dependen.

2 Esleitu zaizkien eginkizunen barruan, zerbitzburuei dago-  
kie beren mendeko lanpostuak zein izango diren erabakitzea, eta  
haiek zuzendu, gauzatu eta kontrolatzea. Emaizak kontuan har-  
turik gauzatuko dute kontrol hori, eta zuzenean aplikatuko beren  
administrazio unitateetako langileengan.

3. Hona zer eginkizun duten zerbitzburutzen titularrek  
beren eskumenei dagozkien gaitan:

a) Zerbitzuko atalek esku artean darabiltzaten gaiak zuzen-  
tzea eta kudeatzea.

b) Foru diputatuari eta zuzendaritza nagusiari laguntza tek-  
niko, juridiko eta administratiboa ematea, zerbitzuarekin lotutako  
gaitan.

c) Foru diputatuari eta/edo zuzendaritza nagusiari, kasuan-  
kasuan, beren eskumeneko gaiak direla-eta egoki deritzoten  
ebazpena proposatzea, baldin eta gaion izapidetzea zerbitzuaren  
ardura da.

d) Beren kargu dituzten atalak hobetzeko eta perfektionatzeko  
berrikuntzak proposatzea, eta atalon antolamenduari eta lan-  
metodoei dagokien gutzia prestatzea.

e) Zerbitzuaren urteko aurrekontuaren proposamena egitea.

f) Zerbitzuaren aurrekontu-programen gauzatzea zuzentzea.

g) Foru diputatuak edo zuzendaritza nagusiak beren-beregi  
eskuordetzen dizkieten eginkizunak eta indarreko legezko xeda-  
penek ematen dizkietenak.

## 12. artikulua. — Atalburutzak

1. Atalburuak beren zerbitzuko buruaren mende daude,  
zuzenean, eta beren ardurapeko administrazio-unitateak zuzendu  
eta kudeatu behar dituzte.

2. Oro har, honako eginkizun hauek dituzte atalburuek, zein-  
ek bere atalaren eskumeneko gaitan:

a) Atalaren jarduerarekin zerikusia duen arautegia prestatu  
eta zerbitzburuari proposatzea, hark onar dezan.

b) Azterlan eta txostenak prestatzea edo ikuskatzea, eta azter-  
lan-txostenok zerbitzburuari aurkeztea, hark onar ditzan.

c) Atalean egiten diren lanak zuzendu eta ikuskatzea, eta bere-  
ziki zaintzea administrazio-prozedura betetzen dela.

d) Beren atalari atxikitako langileak kudeatzea eta haien zuzen-  
eko kontrola egitea, beren zerbitzburuaren ikuskaritzaren pean.

e) Beren ardurapeko administrazio-espeditenteak kudea-  
tzea, kontrolatzea eta haien jarraipena egitea, atalaren eginkizu-  
nak beteko.

f) Beren eskumeneko gaitan egokitzat jotzen dituzten  
ebazpenak proposatzea beren nagusiei.

g) Beren ataleko aurrekontu-programei buruzko informazio-  
lanak antolatzea, atal barrukoak nahiz kanpokoak.

h) Atalaren jardueri buruzko urteko memoriaren proposa-  
mena prestatzea, eta atalari esleituriko helburuen eta ekintzen jarrai-  
pena egitea.

i) Atalaren berezko eginkizunak egitea bereziki.

j) Beren nagusiek edo indarreko arauak eta xedapenek ata-  
laren eskumenen esparruan eskuordetzen edo agintzen dieten beste  
edozein zeregin egitea.

2. Las Jefaturas de Servicio son responsables, dentro de las  
funciones que tienen encomendadas, de la decisión, dirección, eje-  
cución y control de los distintos puestos de trabajo integrados en  
las mismas, ejerciéndose ese control a nivel de resultados y efec-  
tuándose de forma inmediata sobre los empleados/das de sus uni-  
dades administrativas.

3. Las personas titulares de las Jefaturas de Servicio ejer-  
cen, en materias propias de su competencia, las funciones  
siguientes:

a) Dirigir y gestionar los asuntos relativos a las Secciones  
dependientes de su Servicio.

b) Prestar la asistencia técnico-jurídica y administrativa a la  
diputada foral y a la Dirección General, en materias relacionadas  
con su Servicio.

c) Proponer a la diputada foral, y/o a la Dirección General,  
según los casos, la resolución que estime procedente en los asuntos  
de su competencia y cuya tramitación corresponda a su Servicio.

d) Proponer las reformas encaminadas a la mejora y per-  
feccionamiento de las Secciones a su cargo, preparando todo lo  
relacionado a su organización y métodos de trabajo.

e) Elaborar la propuesta del Presupuesto anual del Servicio.

f) Dirigir la ejecución de los programas presupuestarios del  
Servicio.

g) Cuantas funciones les atribuyan la diputada foral, y/o la  
Dirección General por delegación expresa, así como las disposi-  
ciones legales en vigor.

## Artículo 12. — Las Jefaturas de Sección

1. Las personas titulares de las Jefaturas de Sección dirigen  
y gestionan, bajo la dependencia directa del jefe o de la jefa de ser-  
vicio correspondiente, las unidades administrativas de su respec-  
tiva responsabilidad.

2. Con carácter general desarrollan, en las materias cuya com-  
petencia atañe a su sección, las siguientes funciones:

a) Elaborar y proponer al jefe o a la jefa de servicio la apro-  
bación de la normativa relacionada con la actividad desarrollada  
por su Sección.

b) Elaborar o supervisar la elaboración de estudios e informes  
y someterlos a la consideración del jefe o de la jefa de servicio.

c) Dirigir y supervisar los trabajos realizados en la Sección,  
prestando especial atención al cumplimiento del procedimiento admi-  
nistrativo.

d) Gestionar, y ejercer el control inmediato del personal ads-  
crito a su Sección, bajo la supervisión del jefe o de la jefa de su  
servicio.

e) Gestionar, controlar y realizar el seguimiento de los expe-  
dientes administrativos que le sean propios., en desarrollo de las  
funciones de su sección.

f) Proponer a sus superiores las resoluciones que estimen  
procedentes en los asuntos de su competencia.

g) Organizar las tareas de información, tanto internas como  
externas, referentes a los programas presupuestarios de su Sección.

h) Confección, en su caso, de la propuesta de memoria anual  
de las actuaciones de la Sección y el seguimiento de los objetivos  
y acciones atribuidas a la misma.

i) El ejercicio particular de aquellas funciones que sean carac-  
terísticas de la Sección de la que son titulares.

j) Llevar a cabo cualquier otra labor que dentro del ámbito  
competencial de la Sección, le sean delegadas o le encomienda  
sus superiores, o las normas y disposiciones vigentes.

III. KAPITULUA  
EGINKIZUNEN BANAKETA

LEHENENGO ATALA  
ENPLEGUA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA NAGUSIA

**13. artikulua. — Enplegua Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia**

Enplegua Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiaren titularrak erregelamendu honetako 9. eta 10. artikuluetan adierazitako eginkizunak izango ditu, gai hauei dagokienez:

- Kultura ekintzailea eta autoenplegua bultzatzea.
- Laneratzen laguntzen duten politika aktiboak garatzea.
- Enplegarritasuna sustatzea eta hari eustea.

**14. artikulua. — Enplegua Sustatzeko Zerbitzua**

